

Literatura ▸ LIBURUAK

Ni bezain ahul

MIKEL AYERBE

Karamele Jaio ipuingintzara itzuli dela irakur daiteke *Zu bezain ahul* liburuaren kontrazalean. *Amaren eskuak* nobelaren ondoren, *Hamabost zauri* izeneko bere lehendabiziko liburuak generoa berreskuratu duela, alegia. Elkarrizketa batean, orduko ipuinen antza dutela oraingoek ere aitortu du idazleak. *Zu bezain ahul* ipuin liburuaren ere, euren artean loturarik ez duten hamabost istorio bildu ditu Gasteizko idazleak. Hori bai, izenburuan aurkezten den gaiak batuko lituzke istorio guztiak: ahuleziak. Ahuleziak baino gehiago, *ahulkeriak* esango nuke (-keria atzizkia konnotazio negatiboak dituzten izen-etarako erabiltzen den heinean). Ezintasuna, inkomunikazioa eta pertsonon hauskortasuna, hamabost dosi txikitik.

Ipuinotako asko bigarren pertsonan idatzita daude. Pertsonaien kontzientzia murgilduz, egunerokotasunaren ezaugarri diren barne gatazka agerian uzten dira horrela. Oroitzapenak, gogotek eta esaten ez direnak ere indar handiagoa hartzen dute: «Ohitu egin da. Zu gabe bizitzen ohitu egin

dela pentsatu duzu, eta gaur arte sentitu ez duzun hutsunea nabartu duzu sabela baino pixka bat gorago. Sabelaren eta biriken artean. Hortxe duzu hutsune moduko bat, min egiten dizuna. Gaur arte ez duzuna sekula sentitu. Ez dizkizu seme-alabak telefonon jarri ere, lehen egiten zuen bezala». Hala ere, bigarren pertsonaren erabilerak irakurlea kontatzen den istoriotik urruntzeko arriskua ere baduela irakurri izan dut inoiz.

Ipuin berean errepikatzen diren esaldi jakinek eta zenbaketek ere, abestietako lelo edo estribiloen gisara, erritmoa markatzen dute hainbat narrazioetan: «*business is business*»; «punta-takoi, punta-takoi, punta»; «ezker-eskuin, ezker-eskuin, ezker»; «berrogei segundo, hogeita hamar, hogeia»... Zenbait irudiek ere, ipuin osoan hedatzen diren neurrian, funtzio bera dute.

Jaioak argi du (irakurle guztiok argi duzun bezala), ipuinek lehen unetik harapatu behar dutela irakurlea eta narrazio bakoitzak zauri bat baino gehiago zaplazteko bat izan behar duela. Tentuz aukeraturiko hitz edo irudigutxirekin egiten direla ipuinak eta nobeletako floriaturek ez dutela lekuri ipuingintzan. Eta hemen hasten dira ni-



■ 'Zu bezain ahul'

Egilea: Karamele Jaio. **Generoa:** Ipuinak. **Argitaletxea:** Elkar. **Urtea:** 2007.

retzat liburuaren alderdi ahulak. Horregatik harritu naute hainbeste *Arnasa hartzea* bezala ipuineko «Gaueko erregea zen Miguel. Eta bera erregea sentitzen zen. Gaueko printzesa» edota ipuin bereko «Printzesak erregea galdu du ala?»

bezalako esaldiak han-hemenka topatzeak.

Narrazio gehienetan, idazleak azken uneraino ezkutatu nahi izan du ezkutuko hori, bukaeran nola baitoke ezustea sortzeko. Narrazio gintzan hain erabilia den efektismoaren teknika litzateke. Efektu literario horrek ipuin guztia zama jasateko modukoa izan behar du, efektu horren inguruan eraikitzen baita beste dena, eta hori lortzen ez denean, ipuina bertan desagiten da (ezustea aldez aurretik asmatzen duen irakurlearentzat ez delako jada ezustea izango, adibidez). *Gogoratzen* narrazioaren amaiera aldera honakoa irakur daiteke: «Nola esan behar diozu? Esan behar al diozu? Nola esan ez duzula gogoratzen, ez dakizula nor den ere, ez dakizula zer txanponez eta zer gauez ari den berbetan. Bere izena gogoratuko bazenu sikiera...». Ipuin horretan, efektu hau are gehiago ahultzen dela esango nuke azken esaldi apoteosi-koaren bidez: «Heldu zaizu existitzen ez diren oroitzapenak gogoratze ordua». Agian horrexegatik, efektu berezirik gabeko *Zuloa* eta *Jaun eta jabe* ipuinak begitandu zaizkit *Zu bezain ahul* liburuako sendoenak.

Hala ere, egon ziur goian aipaturiko kontu hauek, liburuak ahulguneak baino gehiago, irakurle honen *ahulkeriak* direla.

mayerbe@berria.info



■ 'J.L. Alvarez Enparantza (Txillardegia). Existentialismoa eta Jainkoa: itzalak baino argiak nabarmenagoak'

Egilea: Sebastian Garcia Trujillo. **Argitaletxea:** Desclee de Brouwer. **Urtea:** 2007.

Hainbat euskal idazlek Jainkoarekin eta erlijioarekin duten harremana aztertzen ari da Garcia Trujillo, eta liburu honetan Txillardegiren kasua aztertu du. Bere burua agnostikotzat eduki arren, Txillardegia nekez jo daiteke erlijio gabekotzat, Garcia Trujilloren ustez.



■ 'Euskaldunen jatorria populazioaren genetikan argitan'

Egileak: Joan Ignazio Abrisketa eta Alfontso Martinez Lizarduak. **Generoa:** Saiakera. **Argitaletxea:** Gaiak. **Urtea:** 2007.

Gaur egungo paleoantropologiak, populazioen genetikak, paleohizkuntzalaritzak eta mitologia konparatuak euskaldunen jatorriaren inguruan eman dituzten datu berriak batu dituzte liburuaren egileek, hainbat lan grafiko, mapa eta bestelako irudien laguntzaz.



■ 'Luzaidoko Euskararen Hiztegia'

Egileak: Peio Kamino. **Generoa:** Peio Kamino. **Argitaratzaileak:** Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia. **Urtea:** 2007.

Luzaidoko hitzak jasotzen dituen hiztegi zabala egiteaz gain, aitzinsolasa idatzi dute liburuaren egileek. Luzaidoko euskara «mugaz haraindikoa» dela diote hitzaurrean. Horregatik, «Luzaidoko gutunetako pasarteak ez ezik Iparraldeko literaturako idazleak eta testuak ere» ekarri dituzte hiztegiara.

■ Haur eta gazte literatura

Lekuz kanpo

Alde egitea, joatea, ihes egitea, emigratzea. Nork bere arrazoiak maletan hartuta, daukana baino hobeia izango den zerbaiten bila joatea. Eta leku berrira iritsi eta hango bizimodura egokitzea. XIX. mendeko emigrazioari buruz egin diren lan askoren antza du liburu honetako istorioak: emigranteen arazorik handiena leku berrira egokitzea da. XIX. mende bukarako argazkiak diruditen marrazki errealisten segida bat da, hitzik gabekoa. Eta irakurri nahi duenak ez du bertan ezagutzen duen hizki bakar bat ere ikusiko. Izan ere, liburuak protagonistak, leku berrira iristean, hangoak ulertzeko dituen arazoak *irakurleari* pasako dizkio. Hala ere, ez dago istorioa jarraitzeko arazorik; denak du logika. Gainera, testurik ezak marrazki bakoitza hobeto begiratzera bultzatzen du irakurlea. Eta lehenengo ikusaldian topatzen ez duena bigarrenetan topatuta gozatzen du. Marrazkietako gizakiak argazkietan bezain errealistak badira ere, haien inguruko dena imajinario handiarekin egina dago.



■ 'The Arrival' / 'Là où Vont nos Pères' / 'Emigrantes'

Egilea: Shaun Tan. **Argitaletxea:** Lothian Books / Dargaud / B.F.E.



■ 'Lierni eta Morrokoa'

Egilea: Xabier Mendiguren. **Ilustratzailea:** Jose Belmonte. **Bilduma:** Batela. **Argitaletxea:** Elkar.



■ 'Tapaniren istorioa'

Egilea: Marjaleena Lembcke. **Irudiak:** Susann Opel-Götz. **Itzulpena:** Xabier Uriarte. **Argitaletxea:** Anaya Haritza.

INAKI AGIRREZABAL >> iagirrezabal@berria.info

Mamu zintzoak

Lotara joaten ez bada etorriko omen den mamu gaiztoa egiazkoa ote den deskubritu nahi duen neskatoaren istorioa kontatzen du. Eta mamua aurkitzean, honen gaiztakeria gurasoen asmakaria besterik ez dela konturatzea. Askotan erabiltzen den gaia denez, pertsonaien gorabeheretan ez da berritasun handirik ikusten. Izatekotan, pasarte gehienetan neskatoa bera mamua baino gaiztoagoa izatea izan daiteke. Munduarekin haserre dagoela dirudi. Mamua burlaka hartzea iritsi arte. Marrazkiek ere sentsazio bera uzten dute. Gehienetan neskatoa muturtuta ageri da, baita mamuarekin adiskidetu ondoren musu emateko unean ere. Kontraste handiegia egiten du honek mamuak testuan erakusten duen zintzotasunarekin. Nahiz eta marrazkietan zintzoa baino gehiago dudaz betea dirudien. Zati batzuetan, testuan eta marrazkietan ekinga berak errepikatzen dira, bietako bat alferrik. Mamuaren bila abiatzen denetik aurkitu arteko tarreak izan zezaketen abentura puntua falta dute agian.

Ezezaguna lagun

Norbaitek entzuna edo irakurria izango du plastikozko ahatetxoak zeramatzen barku bat hondoratu zela nonbait. Eta oraindik agertzen direla ahatetxoak edozein isasertzetan. Hori jakinda edo jakin gabe, istorio ederra sortu dute ahatetxoaren aitzakian. Futbolaria izan nahi duen Tapanik ulertzen ez duen hizkuntza batean idatzitako mezu bat jasoko du itsasertzean, egurrezko ahatetxo bati lotuta. Istorioak sakontasuna hartzen du, mezu seme bat izan nahi duen bikoterik gabeko kamioilariak bidali duela jakitean. Zuri-beltzean egindako marrazkiek ondo osatzen dute testuan irakurritakoa. Istorioa aldaketa bakoitzaren eragilea bakarrik dago gorritz ondo nabarmenduta. Protagonistak adin honetakoentzat (sei urtetik aurrera) argitaratzen diren liburu askotan ikusten ez diren horietakoak dira: gezurtiak, irudimenean galduak, erretzaileak, garagardo edaleak... Eskertzekoa da hori, eta istorioa errealtatera hurbiltzeko modu polita.